



Peru Abarka Album lehiaketa 2019

Ilustratzaileen oinarriak

1.- LEHIAKETA

Album lehiaketa bi ataletan dago banatuta. Lehendabizi narrazio onena aukeratzeko lehiaketa egingo da, eta ondoren, aukeratutako narrazio hori ilustratzeko proposamenik onena aukeratuko da. Honako oinarriak arautzen dute ilustrazio lehiaketa.

2.- LEHIATZAILEAK

Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

3.- ILUSTRATU BEHARREKOAK

Ilustratu beharko den narrazio-testua <http://peruabarka.wordpress.com> egongo da eskuragarri euskaraz, eta behin-behineko itzulpenean.

Narrazio horretan oinarrituta, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- 1.- Ilustrazio bikoitza (DIN A-3 tamainakoa, liburuaren 2 orrialderi dagokiona) guztiz amaituta eta koloretan.
- 2.- Portadaren zirriborroa.
- 3.- *Story board* proposamenaren zirriborroa: gutxienez 4 ilustrazio izan behar ditu.

4.- LANAK NOLA AURKEZTU

Edozein teknika erabili ahal izango da.

Lanak formatu digitalean (jpg) aurkeztu beharko dira, 72 pixel inguruko erresoluzioan eta CD batean.

Kopia bakarra aurkeztuko da gutun-azal itxi batean. Gutun-azal horretan eta CDan ez da egilearen izena ipiniko, baizik titulu edo ikurritza. Gutun-azalaren barruan, titulu edo ikurritz berbera duen beste gutun-azal bat sartuko da. Bigarren gutun-azal horren barruan egilearen datuak adieraziko dira: izen-deiturak, telefono-zenbakia, jaiotza-data eta helbide osoa. NAREN fotokopia bat ere sartu beharko da.

Lehiatzaileek gehienez ere bina lan aurkez ditzakete.

Epaimahaiak ebazpena emandakoan, lehiatzaileek hilabeteko epea izango dute aurkeztutako lanak berreskuratzeke. Irabazle ez diren lanen jabetza egileena da.

5.- NON ETA NOIZ AURKEZTU

Lanak Markina-Xemeingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkez daitezke, bai eta postaz bidali ere honako helbide honetara:

Markina-Xemeingo Udala
“Peru Abarka Album Lehiaketa 2019”
Goiko Portala 3
48270 Markina-Xemein. Bizkaia

Lanak aurkezteko epea zabalik egongo da **2018ko apirilaren 23tik ekainaren 21era arte**.

6.- LANA BURUTZEA

Irabazleak ilustrazio-lana aurkeztutako proposamenei jarraituta amaitu beharko du. Behin betiko lana **irailaren 2a** baino lehen aurkeztu beharko du Udalean.

Behin betiko lana jasotakoan ordainduko zaio sariaren zenbatekoa irabazleari.

7.- LANAREN JABETZA

Udalak bere egingo du sarituaren lanaren jabetza 1. ediziorako, eta argitaletxeari emango dio

Ondorengo ediziorik balego, argitaletxeak egilearekin hitzartu beharko ditu zehaztapenak.

8.- SARIA

Irabazle bakarra egongo da eta **1.700 €** jasoko ditu. Horrez gain, lana argitaratuko da album formatuan.

9.- EPAIMAHAIA

Lehiaketari buruzko erabakia eta epaimahaikideen epaitza irabazleari zuzenean emango zaio jakitera. Gainerako parte hartzaileei eta komunikabideei ere jakinaraziko zaie.

10.- BESTE ARAU BATZUK

Lehiaketa honetan parte hartzeak berez dakar oinarri-arau guztiok onartzea. Antolatzaileek, lehiaketaren onerako egoki iritziz gero, behar beste aldaketa egin dezakete arauotan. Halaber, zaindu egingo dituzte aurkezten diren lanak, baina ez dute horien erantzukizunik edukiko. Lanek maila nahikoa ez dutela erabakitzen bada, saririk ez ematea erabaki liteke.